## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### FORU ADMINISTRAZIOKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO DEPARTAMENTUA

*Donostiako udalerriaren izen ofizialaren aldaketa.*

Departamentuko foru diputatuak, honako agindu hau eman du 2012ko uztailaren 27an:

Donostiako Udalak udalerriaren izen ofiziala (hiriburuarena barne) aldatzeari buruzko espedientea igorri du, aurrerantzean Donostia / San Sebastián izan dadin, horren helburua izanik, bata zein bestea erabili ahal izatea, kasuan-kasuan erabiltzen den hizkuntzaren arabera.

Izena aldatzeko Udalak 2012ko maiatzaren 30eko udalbatzarrean hartu zuen erabakiaren arabera, «Udalerriak izen bat du euskaraz, «Donostia», euskarazko testuetan erabiliko dena, eta beste bat gazteleraz, «San Sebastián», gaztelerazko testuetan erabili beharrekoa; eta, bi izenak batera erabili behar direnean, «/» sinboloaz banatuko dira, eta tarte bat utziko da sinbolo horren aurretik eta atzetik».

Kontuan hartuta espedientea 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeari buruzkoak, 35. eta 36. artikuluetan xedatutakoaren arabera izapidetua izan dela, 2012ko apirilaren 2ko 14/2012 Foru Dekretuak, Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak 1.1 f) artikuluan, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolamendu, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40.2 f) artikuluan emandako eskumenak erabiliz, foru diputatu honek,

XEDATZEN DU

Donostiako udalerriaren izen ofizialaren aldaketa (hiriburuarena barne) onartzea; aldaketa horren ondorioz, hemendik aurrera Donostia / San Sebastián izango da izen ofiziala.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2012ko abuztuaren 2a.—Mikel Ulazia Etxabe, Departamentuko idazkari teknikoaren izenpea eskuordetzan.

(7712)

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACION FORAL Y FUNCION PUBLICA

*Modificación del nombre oficial del municipio de Donostia-San Sebastián.*

La diputada foral del Departamento, con fecha 27 de julio de 2012, ha dictado la siguiente Orden:

El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián ha remitido el expediente para la modificación del nombre del municipio (incluida su capital), a fin de que pase a ser el de Donostia / San Sebastián, al objeto de permitir su utilización de forma indistinta en función del idioma que se vaya a emplear.

Según el acuerdo del Ayuntamiento que aprobó modificar el nombre del municipio, acuerdo plenario de fecha 30 de mayo de 2012, «el municipio tiene un nombre en euskera «Donostia» que se utilizará en los textos en euskera, y otro en castellano «San Sebastián» que será el que se utilice en textos en castellano; y cuando ambos nombres deban ser utilizados de forma simultánea, se separarán con el símbolo «/», que deberá ir precedido y seguido de un espacio».

Visto que el expediente ha sido tramitado de conformidad con los artículos 35 y 36 de la Norma Foral 2/2003, de 17 de marzo, reguladora de las Demarcaciones Municipales de Gipuzkoa, en uso de las atribuciones que le confieren el artículo 1.1 f) del Decreto Foral 14/2012, de 2 de abril, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Administración Foral y Función Pública y el artículo 40.2 f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esta Diputada Foral,

RESUELVE

Aprobar la modificación del nombre oficial del municipio (incluida su capital) de Donostia-San Sebastián, que en lo sucesivo pasará a ser el de Donostia / San Sebastián.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso–administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Diputada Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 2 de agosto de 2012.—Por delegación de firma de la secretaria técnica del Departamento, Mikel Ulazia Etxabe.

(7712)